

## **ELIZATXO IKASTOLAKO JANGELAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIA**

### **1. JANGELA BATZORDEA:**

Batzorde hau hurrengo partaideek osatuko dute:

- Ikastolako Zuzendaritza Taldeak.
- Jangelako arduradunak.
- Irakasleak.
- Gurasoak.
- Jangelako langile bat.
- Leoka Guraso Elkarteko kideren bat.

#### **1.1 Eginbeharrak:**

Batzorde honen eginbeharren artean hurrengoak daude:

- Sortzen diren arazo eta gorabeherak aztertzea eta bideratzea.
- Jangelako funtzionamenduaren hobekuntza bermatzea bai jantokian, bai langileei dagokienean.

### **2. JANGELAKO ARDURADUNA:**

Jangelako arduradunak zuzendariaren ardurapean eta batzordearen laguntzarekin jangelaren kudeaketa aurrera eramango du.

Bere funtzioen artean hurrengoak azpimarratu behar dira:

- Zerbitzuaz baliatzen diren bazkaltiarrei kuoten gestioa bideratzea.
- Bazkariaren zerbitzua antolatu eta menuaren jarraipena egitea.
- Jantokiko tresnen gaurkotze eta hornitzeaz arduratzea.
- Jantokiaren diziplinaz eta honen funtzionamendu egokiaz arduratzea.
- Jangela garaian istripu edota osasunarekin lotutako gertaeraren bat suertatuko balitz, horretaz arduratzea.
- Kurtso hasieran begiraleekin bildu bakoitzaren eginkizunak zehazteko.
- Ikasturte hasieran, jangelako antolamendua eta dieta berezien inguruko argibideak begiraleei eta officeko langileei ematea.
- Jantokiko begirale eta officeko langileekin harreman zuzena izatea.
- Jangelako langileekin bildu jangelako martxaz hitz egiteko.
- Gurasoen kezka eta arazoak argitzea.
- Jangelako larrialdi simulakroa antolatzea.
- Jangela batzordearen aktak jasotzea.
- Zerbitzuak behar bezala funtzionatu dezan, egokia ikusten den edozein funtzio, edota indarrean dagoen araudiak agintzen dituenak betetzea.
- Ikasturtero iraileko lehenengo astean tutoreei jangelako elkarbizitzarako proposamenak helarazi, ikasleek aktiboki horma irudiak sor ditzaten jangeletako hormetan jartzeko. Jangelako begiraleak beraiek ere ikasleekin arauak landu.

### **3. OFFICEKO LANGILEAK:**

- Elikagaien tenperatura eta kalitatea behatzea.
- Janaria behar bezala jantoki desberdinetan banatzea.
- Menu bereziak kontuan izatea eta hauek behar bezala iritsi direla ziurtatzea (musulmanak, txerrikirik ez, zeliakoak, esnekiei intolerantziak, edo antzeko alergiak).
- Office-a eta bertako tresnak garbitzea.
- Jantokia, mahaiak eta aulkiak garbitzea, eta instalazioak bazkaltiarrentzat prest izatea.
- Hondakinen kudeaketan parte hartzea.
- Jantokiko funtzionamenduari eragiten dioten gorabeheren berri ematea jantokiko arduradunari; besteak beste, lehengaien erosketen eta tresnen mantentzearen gainean.
- Lan orduetan ezin izango da jan, erre, mugikorrik erabili edo lanpostutik alde egin, arduradunari jakinarazi gabe.
- Zerbitzuak behar bezala funtziona dezan, egoki ikusten den edozein funtzio, bai eta indarrean dagoen legediak agintzen duen bestelako funtzioak.

### **4. BEGIRALEAK:**

Begiraleen funtzio eta erantzukizunak eta denok gogoan eduki beharreko puntuak.

- Jangelan geratzen den ikaslearentzat jangela garaia heziketa prozesuaren ekintza bat gehiago da, beraz jangelan arauak eta ohiturak landu behar ditugu. Ez dira inolaz ere ikastetxeko heziketa proiektutik aldentu behar. Heziketa honetan begiraleak daude eta ondorioz, funtzio eta erantzukizun batzuk dituzte prozesu honetan.
- Begiraleen irudia ezinbestekoa da, funtzio pedagogikoak betetzen baititu. Prozesu honetan, ikasleak ohitura eta jokabide batzuk asimilatzen ditu. Eta era berean, beste ikasleekin harremanetan dago.
- Saiatu behar gara ahalik eta egokien jangelako arauak betetzen, orain arte bezala, baina gure artean hainbat puntu adostu beharra ikusi dugu, ordezkoak etortzen direnerako adibidez.
- Begiraleak iraileko lehenengo eskola egunean, jangela arduradunarekin batera, beraien aurkezpena egin geletan. Jangelako begiraleak beraiek ere ikasleekin arauak landu.

Lehenengo, denok kontuan izan behar duguna hau da: jangela ikastolako heziketaren barruan dagoela, ez zaigu berdin izan behar jaten duen ala ez, baina ezta gure gain ardura osoa jarri ere, bestela oso gaizki kokatzen gara eta giroa txartu daiteke.

- Ikasleen ardura eta zaintza, ikasleak jantokian daudenean, baita jantokian sartu aurreko eta bazkal osteko atsedendietan daudenean ere.
- HH2 eta HH3 urteko ikasleen kasuan eguneroko txostena betetzea.
- Beharrezkoa den guztietan, gurasoei ohartarazpenak idaztea (“jale txarren” kasuan)

- Hiruhileko bakoitzean bazkaltiar guztien JANGELAKO INFORMEAK betetzea.
- Bazkaltiarren eguneroko kontrola eramatea.(Hutsegiteak)
- Begiraleen jarrera eredugarria izango da jangela barruan: janariarekiko jarrera positiboa, txukuntasunaren eta garbitasunaren aldekoa.
- Jangela barruan ikasleei bazkaria banatu.
- Menu bereziak kontuan izan beharko dira (musulmanak, txerrikirik ez, zeliakoak, esnekiei intolerantziak, edo antzeko alergiak).
- Ikasleek bazkaldu ahala platerak jasotzen joan eta bigarrena edo postrea zerbitzatu. Jarraian plater, edalontzi, koilara, sardexka edo labana officera gerturatu.
- Beharrezkoa den jangeletan bigarren txandarako mahaia prestatzen lagundu officeko langileekin batera.
- Ikasleekin izandako gatazken berri jakinaraziko dute jangelako arduraduna.
- Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen duten ikasleak bertara joaten direla ziurtatzea.
- Eskolako sarrerak, jolastokia eta komunak zainduko dira ikaslerik atera ez dadin eta kanpotarrik sartu ez dadin ziurtatuz. Begiraleak lan hau egiteko koordinatuko dira.
- Lan orduetan ezin izango da jan, erre, mugikorrik erabili edo lanpostutik alde egin, arduradunari jakinarazi gabe.
- Zerbitzuak behar bezala funtziona dezan, egoki ikusten den edozein funtzio, bai eta indarrean dagoen legediak agintzen duen bestelako funtzioak.

#### Kontuan hartu beharrekoak:

##### 1. Jateko orduan

- 1.1. Bakoitzak zaindu behar dituen ikasleen ezagupena eta jateko eraren jarraipena. Minimoa jan dezaten ziurtatu, beti MEZU BAIKORRAK igorritz. Lehenengo plateretik gutxi jaten badu, bigarrena eman gabe ez utzi, dagokiona eman behar diogu eta berdin postrearekin ere. Dena den, hau sarritan gertatuz gero gurasoei jakinarazi behar zaie. Gutxiengoa zenbatekoa den adostua dago. Zer dago adostua? Enpresak dio RAZIO OSOA JARRI BEHAR DELA PLATEREAN.

#### Ogia:

	HH2/3	HH4/5	LH1/2/3	LH4/5/6
Anoa osoa	2 behatzen tamaina	3 behatzen tamaina	3 behatzen tamaina	4 behatzen tamaina
Minimoa	Osoaren erdia ohiko gauzak ez direnean			

Nola jokatu dagokiena edo gutxienez minimoa jan dezaten:

Oficca eta begiraleen artean adostuz erabakiko da nola banatu. Norbaitek gehiago nahi edo behar badu har dezake dagoen bitartean.

**Fruta:**

	HH2/3	HH4/5	LH1/2/3	LH4/5/6
Anoa osoa	Platanoa 1/2,1. Piezaren 1/2,1/2 Laranja 1/2,1/2	Platanoa 1. Piezaren 1/2,3/4 Laranja 1	Platanoa 1. Pieza 1 Laranja 1	Platanoa 1. Pieza 1 Laranja 1
Minimoa	<u>Osoaren erdia</u>			

Nola jokatu anoa osoa jan dezaten:

- HH2: platano, laranja, udarea eta sagarra erdia emango diegu.
- HH3: platano osoa, laranja, udarea eta sagarra erdia emango diegu.
- HH4-5: platano osoa, laranja, udarea eta sagarra osoa eskainiko diegu.
- LH1-6: platano osoa, laranja, udarea eta sagarra osoa eskainiko diegu.

Fruta:

- Platanoa: osorik.
  - Laranja: ondoen jaten duten moduan banatuko diegu (4 zatitan egin eta ondoren zurituta edo zuritu gabe talde-ikasle bakoitzaren arabera). Begirale eta office-k zuritu dezakete fruta elkar lanean.
  - Udarea eta sagarra: txikiei zurituta eta LH3tik aurrera zuritu gabe. Zatitzea eskatzen dutenei zatitzea ondo dago, baita haziak kentzea ere eta azala gogorra denean zurituta emango zaie. Azala gogorra den edo ez den denen artean erabakiko da bazkaria banatzen hasi aurretik. Begirale eta office-k zuritu dezakete fruta elkar lanean.
  - Marrubiak: anoa zehaztuta dator.
- 1.2. Ohitura higienikoak: eskuen garbiketa, higiena zaindu erreferentzi bat baikara. Txapela erabili behar da derrigorrez eta eskumuturreko, belarritako, ordulari eta antzekoak ezin dira erabili.
  - 1.3. Diziplina: nola jaten den, jangelan sartzerakoan ordena. Ikasturte hasieran, goiz eta arratsalde hasitakoan, arauak gogoratu eta landuko ditugu (begirale bakoitza bere taldearekin azaldu, gogoratu arrazoitu,..).
  - 1.4. Janaren banaketa jangelak duen araudiaren arabera egingo da.
  - 1.5. Ahotsaren tonua. Zuen jarrera eta portaera garrantzitsua da, ikasleen eredu baitzarete.
  - 1.6. Bukatu arte mahaian egoten ikastea. Bukatu ala jolas lekura jaitsiko dira behean dauden begiraleengana.
  - 1.7. Jaten bukatu ondoren, LH3tik LH6-ra, bakoitzak erabilitako mahai zatia pasako du ahozapiarekin.
  - 1.8. Egunero zerrendak (hutsegiteak) bete eta dieta berezien banaketa kontrolatu.

## 5. JANKIDEAK ONARTZEA:

Jantokiak gehienez ere baimenduta duen edukiera ez denean nahikoa ohiko bazkaltiarren eskari guztiak kontutan izango dira. Hala ere, jantokiko plazak honako lehentasun hauen arabera esleituko dira:

- Garraio-eskubidea duten ikasleak eta ikasle bekadunak.
- Gainerako ikasleak.
- Ikastetxeko langileak.

Jangelako jankideak bi motatakoak izango dira:

- **Ohiko jankideak:** Jantokiko zerbitzua ikasturte osorako eskatu duten Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza ikasleak, gutxienez astean behin joaten direnak izango dira ohiko jankideak.

Kasu honetan, ikasleak eguneko 4,60€ ordaindu beharko ditu eguneko (garraio eskubidea duten ikasleak salbu 3,30€).

- **Noizbehinkako jankideak:** Hezkuntzak jangela zerbitzua erabili ahal izateko epetik kanpo izena ematen duen ikasle oro, noizbehinkako jankidea bezala kontsideratuko da eta jangela zerbitzua erabiltzeagatik 5,20€-ko kuota ordaindu beharko du eguneko, beti ere lekua egongo balitz.
- **Tartekako ohiko jankideak:** Banatutako guraso-zaintza edukitzeagatik edo guraso edo tutoreen lanagatik agian kurtso osoan, astez aste edo hilez hil txandaka ibili daitezkeen ikasleak.
- **Salbuespen kasuak:**  
Ohiko jankide kontsideratuko dira:
  - Epez kanpo matrikulatutako ikasleak (matrikulazio berriak)
  - Ikasturtean zehar matrikula lekualdaketa dela eta Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzaren baimena lortu duen ikaslea.(Trasladoak)

Baldin eta, ikasturtea hasi ondoren ikasleak ez badu jantokia erabiltzen hilabete baino luzeagoan (eta ez badu behar bezala justifikatzen, OOGk ikasle horri jantokiko plaza mantendu edo ez erabaki beharko du.

Jantokiko plazak lehentasunezko hurrenkera honen arabera esleituko dira, zenbat plaza dauden kontuan hartuta:

1. Lehenik eta behin, haur-hezkuntzako eta lehen-hezkuntzako ikasleetatik, jantokira astean 4tan baino gehiago joango diren ohiko jankideak, eta bigarren hezkuntzako ikasleetatik, jantokira astean 3tan joango direnak. Aldi berean, lehentasunaren arabera, hurrenkera hau jarriko da:
  - Garraioa erabiltzeko eskubidea duten ikasleak
  - Ikasle bekadunak
  - Gainerako ikasleak

2. Bigarrenik, aurreko atalean zehaztu bezain maiz etorriko ez diren ohiko jankideei eta tartekako ohiko jankideei emango zaizkie plazak, kurtso bakoitzean egun gehienetan joatekoak diren jankideei lehentasuna emanda.
3. Noizbehinkako jankideak
4. Ikastetxeko langileak

OOGk badauka aukera jantokiko funtzionamenduaren erregelamenduan lehentasun- hurrenkera zehatzagoa sartzeko, baina irizpide orokor hauek errespetatuz eta irizpide objektiboetan oinarrituta.

## **6. FINANTZIAZIO ETA KUOTAK:**

### **6.1 Ikastetxeko kuota motak:**

Lau kuota mota finkatzen ditu Eusko Jaurlaritzak:

- Ohiko jankidea den ikaslea: 4,60€
- Ohiko jankidea garraioko eskubidearekin: 3,30€
- Noizbehinkako jankidea: 5,20€
- Gainerako erabiltzaileak: 8,10€

Jangela zerbitzua dohain izango dute: officeko langileek, begiraleek, Heziketa bereziko laguntzaileek eta jangelako arduradunak.

Kuotak behin eta berriz ez ordaintzea jantokiko plaza galtzeko arrazoia izango da. Erabaki hori ikastetxeko OOGk hartuko du.

### **6.2 Kuotak kobratzeko prozedura:**

Kuoten jarraipena eta kalkulua Hezkuntza Sailak diseinatutako aplikazio informatikoaren bitartez egingo dugu 2016-2017 ikasturtetik aurrera. Aplikaziok **URTE OSOKO ORDAINSARIA** kalkulatu du mahaikidearen izaeraren arabera (garraiatua, ez garraiatua, ez ohikoa), eta **HAMAR HILABETETAN KOBRAZKEKO KUOTA** kalkulatu du.

### **GARRAIATU GABEKO MAHAIKIDEEN ADIBIDEAK:**

	JANTOKIAREN ERABILERA	EGUN KOPURUA	Garraio gabeko PREZIOA/EG	URTEKO KUOTA	HILERO ORDAINTZEKO <b><u>10 HILABETETAN</u></b>
--	-----------------------	--------------	---------------------------	--------------	---

			UNEKO		
A IKASLEA	IRAILA-EKAINA	175	4,6	805 €	80,5 €
B IKASLEA	URRIA-MAIATZA	142	4,6	653,2 €	65,32 €
C IKASLEA	URRIA-EKAINA	158	4,6	726,8 €	72,68 €

**ERNE: IKASLE GUZTIEI, IRAILEAN EDO/ETA EKAINEAN GERATZEN EZ DIREN MAHAIKIDEEI ERE, 10 KUOTETAN KOBRATUKO ZAIE URTEKO KUOTAREN DAGOKIEN ZATIA, IRAILETIK EKAINERA.**

Unibertsitatez besteko ikasleen bekak ebatzita egon arte eta, batik bat, aurreko ikasturtean bekadun izan ziren ikasleen kasuan, ikastetxeko zuzendaritzak aukeran dauka jantokiko kuotak ez kobratzea, aurretik OOGk kasuak aztertuta.

### **6.3 Kuotaren itzulera:**

#### **6.3.1 Jantokiko kuotaren zati bat itzuliko da honako kasu hauetan:**

- Ikasle-kolektibo bat ez denean jantokira joaten aurrez onartutako eta programatutako jarduera osagarriak egin eta piknik zerbitzurik behar ez badute, beti ere, aurrez enpresa esleipendunari jakinarazten bazaio. Ahal dela, jarduera horiek ikasturte hasieran planifikatu eta jakinaraziko zaizkio catering-enpresari. Hori hala egitea posible izango ez balitz, planifikatzen diren unean jakinaraziko dira eta, edonola ere, gutxienez 48 ordu lehenago.
- Jankidea ez bada lau egunez edo egun gehiagoz jarraian jantokira joan behar, beti ere, gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazten bada.  
Bi kasu horietan itzuli beharreko zenbatekoa kasu bakoitzean ikasleak ordaindu beharreko kuotaren % 50 izango da.
- 6.3.2 Ikasle jankideak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren jantokiko bekarik jasotzen badu, ezin da inola ere ezer itzuli.
- 6.3.3 Itzulketak edo deskontuak ikasturte amaieran egingo dira.
- Jardunaldi jarraituan, San Tomas eta Aste Santuko opor aurreko egunean, ez da kuotaren zatirik itzultzen.

### **7. MENUAK:**

- Menuen osaera bera izango da jankide guztientzat, hala ere, aldaketak egon daitezke Haur Hezkuntzako b) puntuari zehaztutako kasuan izan ezik.
- Menu desberdinak onartuko dira honako kasu hauetan:

1.- HH2 urteko bazkaltiarrek hasiera batean menu desberdina eskatzeko aukera izango dute: lehenengoa purean, bigarrena osorik edo dena osorik.

2.- Intolerantziak, alergiak eta gaixotasuna.

Hau ziurtatzeko, ikaslearen gurasoek edo tutoreek, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Espezialistaren txosten mediko ofiziala (OSAKIDETZAKO ZIURTAGIRIA).
- Ezbeharrez hartuz gero jarduteko protokoloa.
- Bazkaltiarren fitxa.

Dokumentazio honek ikastetxean egon beharko du jankideak onartzeko epea amaitzen denean, salbu intolerantzia, alergia edo gaixotasuna geroago azaltzen denean.

3.- Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onartutako menuak hurrengoak dira:

- Menu basala (normala)
- Menu begetarianoa.
- Txerrikirik gabeko menua.

### Piknika

Piknika eskubidea badago baina, gutxieneko bat eskatu beharra dago. Gutxieneko hori 10ekoa da eta kopuru horretara iristen ez bagara, ez da eskainiko.

## **8. ARAUDIA:**

### **8.1.-Jangelako txandak:**

Bi txanda egongo dira jangelan eta hauek ume kopuruaren arabera antolatuko dira. Txandak 12:30etatik 13:20etara eta 13:40atik 14:30etara izango dira.

### **8.2.-Erabiltzaileen eskubideak:**

- Elikadura osasungarri eta orekatua jasotzea.
- Kulturaren edo osasunaren arabera elikadura salbuespenak errespetatuak izatea.
- Tratu ona jasotzea eta laguntza izatea.
- Bazkalurretik edo bazkalostean jarduera ludikoak burutzeko aukera izatea.

### **8.3.-Erabiltzaileen betebeharrak:**

- Beste bazkaltiarrek errespetatzea eta laguntzea.
- Beste erabiltzaile batzuei kultura edo osasun arrazoiengatik ematen zaizkien menuak errespetatzea.
- Begirale eta koordinatzaile guztiak errespetatzea.
- Proposatzen diren ekintzetan lankidetzan jardutea.
- Bazkaltzeko instalazioak, materiala eta tresnak errespetatzea.
- Elikagaiak behar bezala tratatzea.
- Jangela garaian ezin da eskolako itxuratik atera.
- Bazkaltiarren batek ikastetxetik atera behar izanez gero, jangelako arduradunari gurasoek sinaturiko beharrezkoa den ziurtagiria eman beharko dio.



- Egunen batean bazkaltiar batek ez badu jangelara etorri behar, jangelako arduradunari abisatuko dio 24 ordu lehenago (48 ordu alergikoen kasuan) beti goizeko 11:00k baino lehenago.
- Noizbehinkako bazkaltiarrek jangelan geratu nahi baldin badute gutxienez, 48 ordu lehenago jangelako arduradunari jakinaraziko diote.
- Ikasturtean zehar eskolaz kanpoko ekintzak burutzen badira jangela orduan eta hauek eskola eremutik kanpo burutzen baldin badira, gurasoen ziurtagiria behar beharrezkoa izango da haurra ikastetxetik atera dadin.
- Jangela garaian eskola barruan antolatzen diren jardueren osagarrietan eskolarako dugun diziplina araudi bera erabiliko da.
- Jangelako funtzionamendu arauak errespetatzea.

#### **8.4.-Jangelako funtzionamendurako arauak:**

- Ikasle bakoitzak bere lekua izango du eta ikasturte osoan bertan eseriko da.
- Bazkalorduan ezin izango da komunera joan (salbuespenak).
- Mahai, aulki eta gainontzeko tresneria zaindu eta era egokian erabiliko da.
- Bazkaltzeko garaian modu egokian eseriko dira eta ezin izango dute mahaitik altxa bazkaltzen bukatu arte.(Begiraleak arduratuko dira janaria zerbitzatzeaz).
- Sarrerak eta irteerak ahalik eta isiltasun eta lasaitasun handienarekin egingo dira.

#### **8.5.-Arauak haustearen ondorioak:**

- Ikasleren batek elkarbizitza oztopatuko balu sarritan edo behin eta berriz inongo errespeturik erakutsiko ez balu, ondoren zehazten diren neurriak hartuko dira:
  - 1-Ahozko ohartarazpena egingo da: begiraleak jangela arduraduna jakinaren gainean jarriko du eta, honek, tutorea.
  - 2-Ikaslearen aldetik egoera errepikatuko balitz, ikasle eta begiraleak, hausnarketa orria beteko dute eta gurasoek sinatuta ekarri beharko du (ikus I eranskina).  
Araudi honen aurkako jarrerak zuzentzeko, hutsegiteekin bat datozen neurriak hartuko dira, beti ere ikaslearen hezkuntza-prozesua hobetze bidean. Okerra zuzentzeaz gain, gertatutakoaren kausez eta hutsegiteak eragindako kalteez hausnarketa eragiteko erabakiak hartuko dira, aurrerantzean horrelakorik berriro gerta ez dadin (ikus AJA 50-58. orriak).
  - 3-Ikasleren batek hiruhileko berean hausnarketa orria hiru aldiz beteko balu, hutsegite larritzat joko da eta arau-hauslea Jangela zerbitzutik kanpo geldituko da egun batez.
  - 3-Hutsegitea larria edo oso larria izanez gero, Jangela Batzordeak hutsegiteari dagozkion neurriak hartuko lituzke. Arau-hauslea Jangela zerbitzutik kanpo behin-behinean edo behin betiko geratzea aztertuko da (ikus AJA 50-58. orriak).

#### **8.6.-Patioko arautegia:**

- 12:30etatik 14:30etara ezin izango da geletan ezta pasilloetan ibili.

- Komunak beharrezkoak direnean bakarrik erabili. Jangela orduan eraikuntza nagusiko lehen solairuko komunak soilik erabili daitezke.
- Larruzko baloiak ezin dira erabili, baloiak plastikozkoak izango dira.
- Baloiren bat ikastolako eremutik kanpo ateratzen bada, jangelako begiraleari abisatuko diote momentuan. Baloia bila norbaiten ardurapean joango dira.
- 14:15enetan haurrak baloiak jaso beharko dituzte eta 14:25ean maila bakoitza dagokion sarreran jarriko da geletara, era egokian sartu ahal izateko.
- Patinak, patineteak, mugikorrek ezin izango dira jangela orduan erabili.
- Espazio desberdinak erabiliko dira jangela orduan: LH-ko ikasle guztiak patio handia erabiliko dute eta euria egiten duenean, aterpean ibiliko dira. HH-ko ikasleak berriz, HH-ko patioa erabiliko dute eta eguraldi txarra egiten duenean, espazio desberdinak erabiltzeko aukera izango dute egunaren arabera (soinketa gela, aniztasun gela edo gelaren bat). Guzti hau aldeztatik zehaztuta izango da.

## **9. BOTIKAK:**

Edozein bazkaltiarrek jangela orduan botikarik hartu behar badu, hau jangelako arduradunari eman beharko diote gurasoek. Era berean, medikuaren ziurtagiria eskatuko da eta bertan, haurrak hartu beharreko dosia zein den zehaztuko da.